



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
PROBAK

2011ko UZTAILA

ENPRESAREN EKONOMIA

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD

JULIO 2011

ECONOMÍA DE LA EMPRESA

Azterketa honek bi aukera ditu. Haietako bati erantzun behar diozu.

Ez ahaztu azterketako orrialde bakoitzean kodea jarri behar duzula.

A AUKERA

A1. GALDERA: Gehienezko puntuazioa: 2,5 puntu.

Irakur ezazu testu hau, eta erantzun galderei

EAE-KO ENPRESA BATZUEK BEREN PRODUKTUEN BERRI EMAN DUTE MEXIKON ETA SENEGALEN

EAEko 45 enpresak beren produktuen berri eman dute Mexikon eta Senegalen, EAEko hiru merkataritza-ganberak, Eusko Jaurlaritzako Industria Sailaren laguntzarekin, antolatutako bidaia komertzialetan.

Merkataritzako instituzioek eta Eusko Jaurlaritzak uste dute Mexiko “estrategikoki kokatua” dagoela Amerikako iparraldean, 3.000 km baino gehiagoko muga baitu AEBekin eta 108 milioi biztanleko merkatua baitu. Gainera, munduko hamalagarren ekonomia da, Iberoamerikako bigarrena (Brasilen atzetik), eta 875.000 milioi dolarreko **BPGa** du; gainera, **atzerriko inbertsiorako** helmuga nagusietako bat da.

2010ean EAetik Mexikora egindako **esportazioek** 114 milioi euroko balioa izan zuten, zenbait produkturen salmentari esker —besteak beste, ibilgailuetako osagaiak, burdinaren eta altzairuaren galdaketako produktuak (profilak, ijeltziak, eta abar) eta galdaketa-kutxak, xaflak eta moldeen hondoko ereduak—. Bestalde, Mexikoko produktuen inportazioak 208 milioi euro baino gehiagokoak izan ziren EAEn. Inportazio-produktu nagusiak petrolioaren edo mineral bituminosoen olio gordinak dira, eta **inportazio** guztien % 91 osatzen dute.

Senegal Afrika mendebaldeko muturrean dagoen errepublika bat da, eta “kokapen estrategikoa” du eskualdean; Afrikako herrialde “egonkorrenetako bat da, eta garatzeko aukera handienetakoak dituen”. Senegalgo ekonomiak *per capita* 983 dolarreko BPGa du; 2000-2005 urteetan, emaitza makroekonomiko “positibo eta egonkorrak” izan zituen, eta **urteko** % 5-6ko **hazkunde-tasa** izan zuen.

Sektoreka, nekazaritza-sektorean jarduten du populazioaren % 70ek; baina, 2009an, % 12,8ko ekarpena baino ez zion egin BPGari. Gaur egun, arrantza da herrialdeko diru-iturri nagusia, eta **lehen sektorearen** BPGaren % 12,4 dagokio, Senegalgo BPGaren % 1,7. **Bigarren sektorea** Senegalgo BPGaren bosten bat da, eta meatzaritzak, elikagaigintzak eta kimikako industriak osatzen dute batez ere. **Zerbitzu-sektorea** da BPGean ekarpen handiena egiten duena: % 65,7; telekomunikazioak, merkataritza, garraioak eta turismoa dira azpisektore nagusiak.

Galdekizunak:

- Azaldu eta iruzkindu testuan azpimarratuta agertzen diren hitzen esanahia.
- Azaldu ezazu euskal enpresentzat nolako garrantzia daukan merkatu berriak irekitzek.



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
PROBAK

2011ko UZTAILA

ENPRESAREN EKONOMIA

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD

JULIO 2011

ECONOMÍA DE LA EMPRESA

A2. GALDERA: Gehienezko puntuazioa: 2 puntu.

GORBEA S.A. enpresak bizikletak egiten ditu, eta bere produktu baten amaiera-fasean ekoitzirik erosten duen pieza bat erabiltzen du. Enpresan, batez beste, 4.500 pieza kontsumitzen dira 15 eguneko epealdian. Hornitzaileari egiten zaion eskaera bakoitza 9.000 piezakoa izaten da, eta hornikuntza-epea 7 egunekoa. Beste alde batetik, produktuaren ekoizpen-prozesuan arazoak saihestu nahian, enpresak 1.500 piezako segurtasun-stocka ezartzea erabaki du.

Eskatzen da:

- a) Eskaera-puntua.
- b) Batez besteko izakinak (stocka).
- c) Egoeraren irudikapen grafikoa: kontuan izan aurreko datu guztiak eta baita hau ere: hirugarren eskaera jasotzeko, 4 eguneko atzerapena izan da.
- d) Azaldu zer den segurtasun-stockaren haustura eta zer arazo ekartzen dion enpresa bati.

A3. GALDERA: Gehienezko puntuazioa: 2 puntu.

Enpresa batek, iaz, produktu bat ekoizteko, 100.000 euro balio zuten lehengaiak erosi eta kontsumitu zituen, eta, batez beste, biltegian 10.000 euroko izakinak mantendu zituen (bi balio horiek erosketa-prezioan baloratuta daude). Salmenta kopurua, produktuen salmenta-prezioan baloratuta, 600.000 euro izan zen, eta bezeroek enpresarekin batez beste 10.000 euroko zorra mantendu zuten. Enpresarekin zerikusia duten beste datu batzuk, kostuaren arabera baloratuta, hauek dira:

- Urteko produkzioaren balioa 300.000 euro da.
- Ekoizpen-prozesuan dauden produktuen balioa, batez beste, 20.000 euro da.
- Urteko salmentak kostura baloratuta, 400.000 euro.
- Biltegitratuta dauden produktu bukatuak, batez beste, 20.000 eurokoak dira.

Datu horiekin:

- a) Kalkula ezazu enpresa horren batez besteko heltze-aro ekonomikoa.
- b) Azaldu ezazu lortutako emaitzaren esangura.
- c) Enpresak bere gastu guztiak eskura ordaintzen ditu, lehengaiak izan ezik, eta bere hornitzaileekin batez beste 5.000 euroko zor-maila mantentzen du. Jakin nahi da zein den enpresa horren batez besteko heltze-aro finantzarioa.

A4. GALDERA: Gehienezko puntuazioa: 2 puntu

PAZ enpresak, iaz, datu hauek bildu ditu:

- Kostu osoak, 250.000 €.
- Unitateko salmenta-prezioa 10 € izan zen.
- Salmentak, 250.000 €.
- 100.000 €-ko kostu aldakorak izan ditu, gainera

Aurrekoa kontuan hartuta, kalkula itzazu hauek:



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
PROBAK

2011ko UZTAILA

ENPRESAREN EKONOMIA

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD

JULIO 2011

ECONOMÍA DE LA EMPRESA

- Errentagarritasun-ataria edo errentagarritasun-atalasea
- Adierazi grafikoki.
- Azaldu esanahia.
- Zein izan da iazko emaitza ekonomikoa?
- Zein da emaitza 350.000 €-ko salmentekin?

A5. GALDERA: Gehienezko puntuazioa: 1,5 puntu

Kepa Susaeta jaunak 100 akzio erosi zituen 9,3 €-an akzio bakoitza. Ekainean, dibidendu gisa, akzio bakoitzeko euro bat jasotzen du. Urrian 100 akzioak saltzen ditu 10,5 €-an akzio bakoitza.

Azaldu itzazu finantza-ratio hauek:

- Zein izan da akzioen errenta?
- Zein izan da akzioen errentagarritasuna?
- Azaldu ezazu zer den akzioa.



B AUKERA

B1. GALDERA: Gehienezko puntuazioa: 2 puntu.

Enpresa bat makina bat aldatzea pentsatzen ari da. Ekoizle batzuei kontsulta egin eta gero, 2 aukera hauen artean hautatu behar du:

1. aukera:

4 urte iraungo duen makina bat erostea. Erosteke unean eskura ordainduko lukeena 6.010 € da. Lehenengo 2 urteetan 3.000 €-ko kutxa-fluxuak lortzea espero du, 2.000 € hirugarren urtean eta 1.000 € laugarren urtean. Makinaren iraupenaren azken urteko hondar-balioa 600 € dela jotzen da.

2. aukera:

4 urte iraungo duen makina bat erostea. Erostean egin beharreko ordainketa 5.400 € izango litzateke; eta 600 € lehenengo urtea bukatzean. 4 urteko bizitzako urte bakoitzean, 3.000 €-ko kutxa-fluxuak lortzea espero du, eta hondar-balioa 1.000 € dela jotzen da. Gainera, bigarren urtearen bukaeran 200 €-ko mantentze-kostu bat ordaindu beharko luke.

- BENaren irizpidea erabiliz, zein inbertsio aukeratuko du enpresak inflaziorik gabe espero duen errentagarritasuna % 8 bada, eta kalkulatzen den inflazio-maila metatua urteko % 3,25 izanda?
- Zer aukera hartuko du Pay-Back irizpidea kontuan hartuta?

B2. GALDERA: Gehienezko puntuazioa: 2 puntu.

Etxe batean, energia sortzeko, plaka fotovoltaikoak jartzea aztertzen ari dira. Kontuan izanda jarriko luketen plaken kostua 5.000 € dela, inbertsioaren iraupena 3 urtekoa dela eta, batez beste, kWh (kilowatt-ordu) bakoitzaren kostu aldakorra (mantentzea, eta abar) 0,08 € dela, erantzun galdera hauei:

- a) Zenbat kWh kontsumitu beharko lirateke gutxienez 3 urte horietan inbertsioa errentagarria izateko, baldin eta kWh bakoitza IBERDROLAri erostea batez beste 0,16 € kostatzen bazaie?
- b) Etxearen urteko kontsumoa 25.200 kWh bada, jarritako plaken produkzioa 3 urtean 90.000 kWh izango dela aurreikusten bada eta kontsumituko ez dutena IBERDROLAri 0,10 €-an saltzen badiote kilowatt-orduko, zein izango litzateke emaitza 3 urte horien amaieran?
- c) Azaldu ezazu kostu finko eta aldakorren arteko desberdintasuna, eta ipini bakoitzaren adibide bat.

B3. GALDERA: Gehienezko puntuazioa: 4 puntu.

UNINDRA S.A. enpresak ekitaldi honen bukaeran ondare hau du:

- Bere jarduera egiteko lokala..... 15.000.000 €



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
PROBAK

2011ko UZTAILA

ENPRESAREN EKONOMIA

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD

JULIO 2011

ECONOMÍA DE LA EMPRESA

- Eskudirua kutxan 700.000 €
- Enpresaren aldeko saldoa bankuan duen kontu korrontean ... 950.000 €
- Lortutako mailegua 8 urte barru itzultzeko 12.500.000 €
- Apalak eta hainbat altzari..... 1.500.000 €
- Ordenagailuak eta inprimagailua 750.000 €
- Banaketarako furgoneta 4.500.000 €
- Hainbat faktura kobratzeko 1.500.000 €
- Ordaindu gabe dituen fakturak 2.200.000 €
- Biltegian dituen salgaiak..... 5.400.000 €
- Bezeroek onartutako truke-letrak 2.300.000 €
- Hornitzaileei onartutako letrak 2.100.000 €
- BEZaren kitapenagatik Ogasunari zor diona..... 250.000 €
- Legezko erreserba 200.000 €
- Ibilgetuaren amortizazio metatua..... 1.050.000 €
- Kapital soziala ??????

Hau eskatzen da:

- a) Enpresaren balantzea ondare-masatan sailkatuta aurkeztea.
- b) Errotazio-fondoa edo maniobra-fondoa kalkulatzeko eta emaitza aztertzea.
- c) Enpresaren finantza-egoera aztertzea ratio hauek erabiliz:
 - Ibilgetua
 - Zorpetze osoa
 - Diruzaintza edo altxortegia
 - Likidezia
 - Bermea
 - Finantza-autonomia

B4. GALDERA: Gehienezko puntuazioa: 2 puntu.

Erantzun galdera hauei:

- Aipa eta azaldu itzazu enpresa batek dauzkan kanpoko finantzaketa-bideak.
- Nolako eragina du bankuen egungo portaerak enpresen funtzionamenduan?